

## OKENDO.

Gizon aundi au ill zala otsa  
 abo guzitan baitabill,  
 ain beste giza-alditan kontu  
 bera besterik eztabill;  
 baña ¿zergatik ordea ori  
 ala ez izan ta dabill,  
 Donostiako Antoniorik  
 ezpaldin bada iñoiz ill?

Aundi chikiyak denak denboraz  
 gordetzen dira lurpean,  
 zeñen azkenak gelditzen diran  
 anchen betiko lo bean;  
 bañan aundi yak lenaz izanak  
 alcharik losak aidean,  
 berriro dira ikusten zutik  
 beren losaren gañean.

Okendok ala alcharik bera  
 estaldutzeko jarriya,  
 azpiyan artu nai du lenago  
 gañean zeukan arriya;  
 eta onetaz on-iritzirik  
 lur maite jaioterriya,  
 argitan bizi dedin billatu  
 diyo jarleku berriya.

Bada anziñan ustez il zana  
 oraindik nola dan bizi,  
 seaskatikan jaiki dediyen  
 laguntzen obe da asi;  
 luzaro lotan egondu dana  
 esna bear da ikusi,  
 oroigarri<sup>1</sup> bat egin ka anchen  
 ez du emango itsusi.

Onetatikan ikusiko du  
 bere echea mendigan,  
 nola itsaso Ozeanoa  
 zabaltasun chit aundiyan,  
 eta guk bera ikus dezagun  
 aurrera onraz erriyan,  
 apaundurikan parako degu  
 sarjiñchoaren erdiyan.

Torre polit bat alchako zaio  
 esan dan leku onean,  
 bere izena urrezko letraz  
 izkribaturik oñean;  
 eta bronzeko janzi eder bat  
 daukala berak soñean,  
 Okendo zutik ikusiko da  
 torrechoaren gañean.

**Ramon Artola.**

## OKENDO - RI.

Okendo, jayo ziñan itsas-ortzean  
 Donostiako Ulia-medipean:  
 Ur gañean joan ziran zure urteak,  
 Euskal-erriarentzat onraz beteak:  
 Itsas-ertzean ill ziñan azkenikan,  
 Bere orroak oyetik entzunikan.  
 Ala gaur ikusirik zu goititutzen  
 Or ur-ertzean zer ziñan kantatutzen,  
 Uste det itsasoa zure oñera  
 Datorrela, zér ziñan guri esatera.

**Karmelo Echegaray-koak.**

(1) monumento,